

Gure aplikazioaren garapenean, funtsezkoa da proiektuaren existentzia bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak identifikatzea eta planifikatzea. Baliabide horiek alderdi teknologikoak ez ezik, giza eta finantza-alderdiak ere biltzen dituzte.

Alde batetik, baliabide finantzarioa beharko dugu, diru laguntza baten bitartez lortuko duguna. Diru laguntza horrek [Durangoko eskola kontseiluari](#) gure proiektua erakutsiz eta Bestetik, baliabide fisikoei dagokionez, web plataforma eta aplikazioa beharko ditugu. Hauek sortzeko eta mantentzeko, ordenagailu bat beharko dugu. Lan egiteko lekuari dagokionez, bakoitzak bere etxetik lan egingo du eta bideodeien eta gmail-en bidez komunikatuko ginateke. Dena den, noizbehinka Durangoko liburutegian batuko ginateke bilera garrantzitsuak egiteko.

Azkenik giza baliabideen artean software garatzaile batekin kontaktatu beharko dugu gure aplikazioa sortzeko eta mantentzeko, eskoletan publizitatea egiteko eta hitzaldiak emateko, gu laurok, gure hezitzaile jakintzak beharko ditugu.

Webgunearen diseinua	Maeva
Enpresaren administrazioa	Asier
Aplikazioaren garapen-prozesua eta bezeroentzat laguntza eskaini	Ane
Publizitatea	Eider

Bestalde, webgunearen diseinua dela eta, Maevaren trebetasuna eta sormena beharko ditugu, Asierren enpresaren administrazioa eramango zuen, Anek bere antolatzeko eta laguntzeko abileziak erabiliko zituen eta aplikazioaren garapen-prozesua argia eta eraginkorra izatea lortu eta bezeroentzat laguntza eskainiko zuen eta azkenik, Eiderrek publizitatea eramango zuen.